

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Herri Lan eta Garraio Sailsa**Kalteak ordaintzeko 2015/00122 espedientea zabaldu izana jakinarazteko iragarkia.**

Ahalegina egin da, bi aldiz, Canteras de Markina, S.A. enpresaren helbidean jakinarazpena egiteko eta administrazio honi egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik ezinezkoa gertatu dela kontuan hartuta, bada Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5. artikulua ezarri duena betez, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldarazi dena, hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeari eta, halaber, interesatuaren azken helbideari dagokion Udaleko ediktuen oholtzan erakusteari ekin zaio.

Ondore horietarako Canteras de Markina, S.A. empresari jakinarazten zaio Herri Lan eta Garraioen Foru Saileko Ustiapen Zerbitzuaren bulegoetan (Ibáñez de Bilbao kalea, 20, 4. solairua, 48009-Bilbo) eskura duela kalteak ordaintzeko 2015/00122 espediente zabaldu izanari buruzko jakinarazpena. Jakinarazpen hori hamar egun balioduneko epearen barruan jaso behar du, hau da, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatuta.

Adierazi den epe hori igaro eta ez bada azaldu den espediente horretan eskatu dena bete eta ez bada bide hau erabiliz egin den jakinarazpena jaso, zuzenbidean ezarrita dauden jarduketekin jarraituko da.

Bilbon, 2015eko otsailaren 13an.—Herri Lan eta Garraioen foru diputatua, Itziar Garamendi Landa

(I-353)

Departamento de Obras Públicas y Transportes**Anuncio de notificación de incoación expediente de Resarcimiento de daños número 2015/00122.**

Intentada sin efecto la práctica de la notificación en el domicilio de Canteras de Markina, S.A., por dos veces, y no siendo posible haber realizado ésta por causas no imputables a esta Administración, en cumplimiento de lo estipulado en el artículo 59.5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se procede a su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia», así como a su exposición en el tablón de edictos del Ayuntamiento del último domicilio del interesado.

A tal efecto, se pone en conocimiento de Canteras de Markina, S.A., que se encuentra a su disposición en las dependencias del Servicio de Explotación del Departamento Foral de Obras Públicas y Transportes (calle Ibáñez de Bilbao, 20, 4.ª planta 48009-Bilbao) notificación de incoación de expediente de Resarcimiento de daños número 2015/00122, la cual deberá ser retirada en el plazo de 10 días hábiles, contados a partir del siguiente al de la publicación de este anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Transcurrido el citado plazo sin haber procedido a cumplimentar lo preceptuado en el citado expediente ni procedido a la recepción de la notificación realizada por el presente medio, se proseguirán las actuaciones a que hubiere lugar en derecho.

En Bilbao, a 13 de febrero de 2015.—La diputada foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi Landa

(I-353)

Gizarte Ekintza Sailsa**Bizkaiko Foru Aldundiaren 17/2015 FORU DEKRETUA, otsailaren 17koa, Gizarte Ekintza sailak herritarren esku-bideen berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren arloetan jarduerak egiteko norgehiagoka araubidean ematen dituen diru-laguntzak arautzeko oinarriak eta deialdia onesten dituen.**

ZIOEN AZALPENEA

Gizarte Ekintza Saileko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia Bizkaiko Foru Aldundiaren helburu programatikoetako bat betetzeko helburuarekin sortu da, alegia, eskubide guztiak pertsona guztiarentzat bermatzen dituen gizarte bat lortzea. Beraz, zuzendaritza nagusi horri dagokio aniztasuna zaintzea eta herritarrek beren eskubideak erabili ahal izateko aurre egin behar dieten desberdintasunen aurka egitea, herritarron jatorri, nortasun kultural edo etnikoa, sexu-joera, eta abar edozein dela ere.

Horretarako, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak zenbait baliabide prestatu ditu elkarbizitza harmonikoa sustatzeko. Elkarbizitza horren oinarriak dira, hain zuzen ere, pertsonen arteko errespetua, herritarrek eskubideez gozatzea, pertsona guztiak dagozkien betebeharrak betetzea eta gizartearen zein politikan aukera berdinekin parte hartzeko aukera izatea.

Baliabide horien artean garrantzitsuenetako bat da herritarren eskubideen berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren arloetan jarduerak egiteko urtero egiten den diru-laguntzen deialdia. Bide hori

Departamento de Acción Social**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 17/2015, de 17 de febrero, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones que se concedan por el departamento de Acción Social en régimen de concurrencia competitiva y que tengan por finalidad la realización de actividades en el ámbito de la igualdad de derechos ciudadanos y la no discriminación.**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Dirección General de Igualdad del Departamento de Acción Social se crea con la finalidad de trabajar por el objetivo programático de la Diputación Foral de Bizkaia de conseguir una sociedad en la que todos los derechos sean para todas las personas. Así, corresponde a esta Dirección General velar por la diversidad y en contra de las desigualdades en el acceso de ciudadanos y ciudadanas a sus derechos, independientemente de su lugar de origen, identidad cultural o étnica, orientación sexual, etc.

Con este fin, la Dirección General de Igualdad ha puesto en marcha diversos instrumentos dirigidos a la promoción de una convivencia armónica, basada en el respeto entre las personas, el disfrute de derechos y el cumplimiento de deberes de todas y cada una de ellas y su participación social y política en igualdad de condiciones.

Entre estos instrumentos, uno de los más importantes es la convocatoria anual de subvenciones para la realización de actividades en el ámbito de la igualdad de derechos ciudadanos y la no

2008an hasi zen, eta, zazpi ekitaldi igaro ondoren, argi geratu da baliabide estrategikoa dela gizarteko zenbait talderen parte-hartze publikoa ahalbidetuko duen elkarte-sare bat indartzeko eta Bizkaiko gizartean kultura-trukerako guneak sustatzeko. Hala, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak lagundu du gero eta anitzagoa den gizarte baten erronkei aurre egiten, zeinak pertsona eta talde guztien gizarteratzea sustatzea eskatzen duen, guztion identitateari zor zaion begirune handienetik.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan beharrezkoak diren kredituak ezartzen dira urtero diru-laguntza horiek emateko, eta, ondorioz, ezinbestekoa da deialdia egin aurretik diru-laguntzen arautegia ezartzea. Foru erakundeak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzeko foru dekretu bidez, zerbitzu juridikoak txostenaren ondoren. Foru arau horren 8.3 artikulua dio oinarriak diru-laguntza mota bakoitzerako izango direla.

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak ez zaizkio Europako Batzordeari jakinarazi behar, gutxieneko laguntzei buruzko Batzordearen 2006ko abenduaren 28ko (EB) 1998/2006 Erregelamendua araberako.

Aurreko guztia kontuan hartuta, zerbitzu juridikoak txostenak egin ondoren, eta Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2015eko otsailaren 17ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra

Gizarte Ekintza Sailak diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartu ditu, eta haren testua jarraian jaso da.

I. KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZA MODALITATE GUZTIETARAKO BERDINAK DIREN XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— *Xedea*

Foru dekretu honen bidez arautzen dira Bizkaiko Foru Aldundiak 2015eko ekitaldian zehar herritarren eskubideen berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren arloetan emango dituen diru-laguntzen deialdi publikoa eta oinarriak.

Foru dekretu honen bidez honako diru-laguntza mota hauek arautzen dira:

- a) Etorकिन elkarteen antolaketa egitura sendotzeko diru-laguntzak: antolaketa, funtzionamendu mantentze-lanen gastuak finantzatzeko dira (II. kapitulua).
- b) Kulturartekotasuna bultzatzeko eta herritar integraztaileak sortzeko sentsibilizazio proiektuak egiteko diru-laguntzak, programok etorkinen elkarteek eta/edo etorkinoin laguntzeko erakundeek egiten badituzte (III. kapitulua).
- c) Sexu-joeragatik bereizkeriaren aurkako eta Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen kolektiboaren (aurrerantzean, LGBT) esku-bideen aldeko borrokan laguntzen duten elkarteek egindako sentsibilizazio-jarduere programetarako diru-laguntzak (IV. kapitulua).

2. artikulua.— *Erakunde onuradunak*

1. Erakundeek honako baldintza hauek bete behar dituzte foru dekretu honetan jasotzen diren onurak lortu ahal izateko:

- a) Behar den bezala eratuta eta dagokion erregistroan inskribatuta egon behar dute, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean.

discriminación. Este ejercicio de trabajo se inició en 2008 y, tras siete ejercicios, se ha revelado como un instrumento estratégico para el fortalecimiento de un tejido asociativo que propicie la incorporación de determinados colectivos sociales a la participación pública, y para la promoción de espacios de intercambio cultural en el seno de la sociedad vizcaína. La Dirección General de Igualdad ha contribuido, de este modo, a enfrentarse a los retos de una sociedad cada vez más diversa, que exige promover la integración de todas las personas y colectivos desde el máximo respeto a su identidad.

En los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia, se vienen consignando cada año los créditos precisos para hacerlo efectivo, a cuyo efecto se hace necesario establecer, con carácter previo a las convocatorias, su normativa reguladora. El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante Decreto Foral, previo informe del servicio jurídico, y el artículo 8.3 de dicha Norma Foral precisa que las bases se referirán a cada tipo de subvención.

Las subvenciones cuyo régimen se establece en estas bases están exceptuadas de la obligación de notificación a la Comisión Europea, en virtud del Reglamento (CE) núm. 1998/2006, de la Comisión, de 28 de diciembre de 2006, de ayudas de mínimos.

Por todo lo anterior, previo informe del servicio jurídico y a propuesta de la diputada foral de Acción Social, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de fecha 17 de febrero de 2015,

DISPONGO:

Artículo único

Se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones por el Departamento de Acción Social, cuyo texto se inserta a continuación.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES COMUNES A TODAS LAS MODALIDADES DE SUBVENCIÓN

Artículo 1.— *Objeto*

Mediante el presente Decreto Foral, se regula la convocatoria pública y las bases para la concesión de las subvenciones en materia de igualdad de derechos ciudadanos y no discriminación a conceder por la Diputación Foral de Bizkaia durante el ejercicio presupuestario de 2015.

Este Decreto Foral regula las siguientes modalidades de subvención:

- a) Subvenciones para el fortalecimiento de la estructura organizativa de las asociaciones de personas inmigrantes, mediante la financiación de sus gastos de organización, funcionamiento y mantenimiento (Capítulo II).
- b) Subvenciones para la realización de proyectos de sensibilización en materia de interculturalidad y ciudadanía inclusiva, realizadas por asociaciones de personas inmigrantes y/o de entidades de apoyo a las mismas (Capítulo III).
- c) Subvenciones para programas de actividades de sensibilización realizadas por asociaciones de apoyo a la lucha contra la discriminación por razones de orientación sexual y por los derechos del colectivo de Lesbianas, Gays, Bisexuales y Transexuales, en adelante LGBT (Capítulo IV).

Artículo 2.— *Entidades beneficiarias*

1. Podrán acceder a los beneficios contenidos en el presente Decreto Foral las entidades que cumplan los siguientes requisitos:

- a) Estar constituida e inscrita formalmente en el registro que corresponda, a la fecha de publicación de la presente convocatoria en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

b) Estatutueta islatu behar dute beren helburu soziala hau dela:

— Jarduerak egitea kulturartekotasunaren arloan, edo aurreiritzien eta jokabide xenofobo eta / edo arrazisten aurkako borrokaren arloan, foru dekretu honetako II. eta III. kapitulueta aurkeztutako proiektuen kasuan.

— LGTB kolektiboaren eskubideen defentsari lotutako jarduerak egitea, foru dekretu honetako IV. kapitulueta aurkeztutako proiektuen kasuan.

c) Ezin dute irabaziak lortzeko asmorik eduki.

d) Foru dekretu hau argitaratu aurretik dekretu honek jasotzen dituen arloetan jardun publikoa izan behar dute, egiaztatzeko modukoa.

e) Egoitza soziala edo ordezkari itaunkorra eduki behar dute Bizkaiko Lurralde Historikoan.

f) Ezin dira sartuta egon izaera bereko diru-laguntza edo laguntzak direla-eta hasi den itzulketan- edo zigor-prozeduraren batean

g) Ezin dira egon Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere. Horretarako, onuradun izateko 12. artikuluko horren 2. eta 3. zenbakietan ezarritako debeku-egoeretako batean ere ez daudela justifikatzeko, erakundeek lekukotasun judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak erabili ahal izango dituzte, dagokion araudian ezarritakoaren arabera, edo, bestela, administrazio-ziurtagiria aurkeztu beharko dute, kasuaren arabera. Agiri horren orde, administrazio agintari baten edo notario publiko baten aurrean egindako erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu ahal izango da.

2. Erakunde onuradunek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte.

3. artikulua.— *Araudi orokorra*

Foru dekretu honetan zehazten diren diru-laguntzak arautuko dira dekretuan bertan ezarritakoaren arabera eta diru-laguntzak emateko foru aginduetan ezartzen diren gainerako baldintzen arabera. Foru dekretu honetan zehaztuta ez dauden kasuetan honako hauek aplikatuko dira: 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearena; 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Erreglamendu Orokorra onetsi duena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko orokorra; 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena; eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, Diru-laguntzen Erreglamendua oneste duena.

4. artikulua.— *Jarduera programen edo proiektuen baldintzak*

1. Aurkezten diren proiektuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Ez dute bereizkeriarik eragin behar arraza, sexua edo iriztia dela eta.

b) Proiektuon %20, gutxienez, kofinantzatu behar da erakunde eskatzailearen kanpoko baliabideekin edo finantziario publiko edo pribatuko beste iturri batzuetako baliabideekin. Kofinantzaketatzat joko da boluntarioek egindako lana, kofinantzaketaren zenbateko osoaren erdia (%50) gainditzen ez bada. Pertsona horien lana Bizkaiko Gizarte Esku-hartzerako Hitzarmenaren (laguntzaileak) arabera ebaluatuko da.

c) Proiektu bideragarriak eta itaunkorrak izan behar dute.

d) Erabilitako baliabideen, egingo diren ekintzen eta ekintzok in lortu nahi diren emaitzen arteko erlazio koherentea erakutsi behar dute.

e) Ekintza berriak finantzatzeko edo aurretik hasitakoekin jarraitzeko ekintzak izan behar dute. Orobat, ez dira finantzatuko 2015. urtearen aurreko urteetan egindako gastuak.

b) Reflejar en sus estatutos que su objeto social incluye:

— La realización de actividades en el área de la interculturalidad o en el de la lucha contra prejuicios y conductas xenófobas y/o racistas, en el caso de proyectos presentados a los Capítulos II y III del presente Decreto Foral.

— La realización de actividades relacionadas con la defensa de los derechos del colectivo LGTB, en el caso de proyectos presentados al Capítulo IV del presente Decreto Foral.

c) Carecer de ánimo de lucro.

d) Haber desarrollado una actividad pública constatable con anterioridad a la publicación del presente Decreto Foral en materias propias del mismo.

e) Disponer de sede social o delegación permanente en el Territorio Histórico de Bizkaia.

f) No hallarse incurso en procedimiento alguno de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza.

g) No estar afectada por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. A tal efecto, la justificación por parte de las entidades de no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiarias señaladas en los apartados 2 y 3 del mencionado precepto podrá realizarse mediante testimonio judicial, certificados telemáticos o transmisiones de datos, de acuerdo con lo establecido en la normativa correspondiente, o certificación administrativa, según los casos. Dicho documento podrá ser sustituido por una declaración responsable otorgada ante una autoridad administrativa o notario público.

2. Las entidades beneficiarias deberán cumplir las obligaciones relacionadas en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Artículo 3.— *Normativa general*

Las subvenciones establecidas en el presente Decreto Foral se regirán por lo dispuesto en el mismo y por las restantes condiciones que se establezcan en las Órdenes Forales de otorgamiento. En lo no previsto en el presente Decreto Foral, será de aplicación lo establecido en la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como la normativa contemplada en el Decreto Foral 169/2014 de 16 de diciembre por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Régimen Jurídico General de Subvenciones y el Decreto Foral 34/2010, 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones.

Artículo 4.— *Requisitos de los programas de actuación o proyectos*

1. Los proyectos presentados deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) No ser discriminatorios por razón de raza, sexo u opinión.

b) Ser cofinanciados, al menos, en un 20% por recursos ajenos, provenientes de la entidad solicitante o de otras fuentes de financiación, públicas o privadas. Se podrá contabilizar como cofinanciación el trabajo realizado por personal voluntario, siempre y cuando no supere la mitad (50%) del importe total de la cofinanciación. Dicho trabajo será valorado en función de Convenio de Intervención Social de Bizkaia, personal auxiliar.

c) Ser proyectos viables y sostenibles.

d) Exponer la relación coherente entre los recursos utilizados, las acciones a realizar y los resultados a alcanzar con ellas.

e) Corresponder a la financiación de nuevas acciones o continuación de otras anteriores. Asimismo, no se financiarán gastos realizados en años anteriores a 2015.

f) Proposatzen diren ekintzek 2015eko abenduaren 31 baino lehen amaituta egon behar dute, eta 2016eko urtarrilaren 31 baino lehen justifikatu behar dira.

g) Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzen bidez finantzatutako jarduerak Bizkaiko Lurralde Historikoan egin beharko dira.

2. II. eta IV. kapituletan, erakunde eskatzaile bakoitzak proiektu edo jarduera programa bakarra aurkez dezake. III. kapituluaren berriz, erakunde berak gehienez bi proiektu aurkez ditzake, guztira bietarako eskatutako diru-kopuruak 18.000 euroko muga gainditzea ez badfau.

3. Programak eta proiektuak burutzeko orduan, EAEko hizkuntza ofizial bietako bat erabili beharko da. EAEn bizi diren biztanleek erabiltzen duten beste edozein hizkuntza esanguratsu ere erabili ahal izango da, betiere baina hizkuntz ofizialen erabilera errespetatuta.

4. Erakunde eskatzaileek zehaztu egin behar dute deialdira aurkezten diren ekintzek beste sail edo erakunde batzuen laguntzak ere jaso dituzten edo halako laguntzarik eskatu den. Hala bada, jaso dituzten laguntzen zerrenda aurkeztu behar dute, eta haien zenbatekoa eta helburua zehaztu.

5. artikulua.— *Diru-laguntzak emateko araubidea*

Diru-laguntzak Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez emango dira, norgehiagoka araubidean. Hain zuzen ere, dekretu honen artikuluetan ezarritako irizpideen arabera puntuaziorik handiena lortzen dutenei emango zaie diru-laguntza. Diru-laguntzak emateko muga izango da dagokion aurrekontu-partidan ezarritakoa zenbatekoa.

6. artikulua.— *Eskabideak eta agiriak aurkeztea eta horretarako epeak*

1. Foru dekretu honetan zehazten diren diru-laguntzak eskuratu nahi dituzten erakundeek eskabide normalizatuak erabili behar dituzte eskaera aurkezteko, hain zuzen ere, dekretu honi erantsitako ereduaren arabera. Eskabidean bertan eskatutako agiriez gain, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira, jatorrizkoak edo behar bezala egiaztatutakoak:

- Erakundearen estatutuak, behar bezala legeztatuta.
- Entitateko presidentearen zinpeko adierazpena. Bertan, entitateko bazkideen kopurua jasoko da, sexuen arabera bereizita.

II. kapituluaren diru-laguntzen eskaerei dagokienez, zinpeko adierazpenak erakundea osatzen duten etorkinen portzentajea ere jaso beharko du, foru dekretu honen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Erakundeak dagokion administrazio erregistroan izena eman duela egiaztatzen duen agiria.
- Eskabidea sinatzen duenak erakundearen izenean jardun dezakeela egiaztatzen duen agiria.
- Eskaera sinatzen duen pertsonaren nortasuna egiaztatzen duen agiria.
- Identifikazio fiskaleko kodea.
- Foru dekretu hau argitaratu aurretik dekretu honek jasotzen dituen arloetan egiazta daitekeen jarduera publikoa garatu dutela egiaztatzen duen dokumentua.
- Diruz laguntzea nahi den proiektua edo jarduera. Gutxienez, honako hauek jaso behar dira: egingo den jarduera bakoitzaren deskribapena eta helburuak.
- Proiektuaren aurrekontu zehaztua. Eskabide-ereduan jasotako partida-moten arabera antolatuta beharko dute erakundeek gastua Aurrekontuak jaso behar du proiektuaren %20, gutxienez, beste inoren baliabideen bidez kofinantzatuko dela, baliabide horiek erakunde eskatzailearen kanpoko baliabideak edo finantziazio publiko edo pribatuko beste iturri batzuetako baliabideak izan daitezkeelarik. Kofinantzaketatzat joko da boluntarioek egindako lana, kofinantzaketaren zenbateko osoaren erdia (%50) gainditzen ez badu. Pertsona horien lana Bizkaiko Gizarte Esku-hartzerako Hitzarmenaren (laguntzaileak) arabera ebaluatuko da.

f) Las actuaciones propuestas deberán concluir antes del 31 de diciembre de 2015 y deberán justificarse antes del 31 de enero de 2016.

g) Las actividades financiadas a través de las subvenciones previstas en esta convocatoria se desarrollarán en el Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Cada Entidad solicitante podrá presentar un único proyecto o programa de actuación en el caso de los capítulos II y IV. En el caso del Capítulo III, una misma entidad podrá presentar hasta dos proyectos, siempre y cuando el total solicitado en ambos no rebase los 18.000 euros.

3. En la ejecución de los programas y proyectos, se deberá hacer uso de una de las dos lenguas oficiales de la CAPV. También podrá utilizarse cualquier otro idioma significativo de la población que convive en la CAPV, sin menoscabo del uso de las lenguas oficiales.

4. Las entidades solicitantes deberán especificar si las acciones que presentan a la convocatoria han sido objeto de solicitud o concesión de ayudas por otros departamentos o instituciones, en cuyo caso deberán presentar una relación de las mismas, detallando su cuantía y finalidad.

Artículo 5.— *Régimen de concesión*

La concesión de las subvenciones se realizará mediante Orden Foral de la diputada foral de Acción Social, en régimen de concurrencia competitiva, otorgándose la subvención a aquellas solicitudes que hayan obtenido mayor valoración, según los criterios que se establecen en los artículos correspondientes, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

Artículo 6.— *Presentación de solicitudes, documentación y plazos*

1. Las Entidades que deseen acogerse a las ayudas previstas en el presente Decreto Foral deberán presentar la solicitud en instancia normalizada, según modelos anexos. Se adjuntarán, además de la documentación requerida en la misma, los siguientes documentos originales o debidamente compulsados:

- Estatutos sociales debidamente legalizados.
- Declaración jurada de la Presidencia de la entidad en la que conste el número de socias y socios de la misma, desagregado por sexos.

En el caso de las solicitudes dirigidas al Capítulo II, la citada declaración jurada deberá indicar, además, el porcentaje de personas inmigrantes que componen la entidad, de conformidad con lo establecido en el artículo 19 del presente Decreto Foral.
- Documento acreditativo de la inscripción de la entidad en el registro administrativo correspondiente.
- Documento acreditativo de que quien firma la solicitud puede actuar en nombre de la entidad.
- Documento acreditativo de la identidad personal de quien firma la solicitud.
- Código de identificación fiscal.
- Documento que acredite que la entidad ha desarrollado una actividad pública constatable con anterioridad a la publicación del presente Decreto Foral en materias propias del mismo.
- Proyecto o actuación que se propone subvencionar, conteniendo, como mínimo, la descripción de cada actividad a realizar y sus objetivos..
- Presupuesto detallado del proyecto. Las entidades deberán ordenar el gasto en función de las partidas tipo contenidas en el modelo de solicitud. El presupuesto deberá reflejar que el proyecto será cofinanciado al menos en un 20% por recursos ajenos, provenientes de la entidad solicitante o de otras fuentes de financiación, públicas o privadas. Se podrá contabilizar como cofinanciación el trabajo realizado por personal voluntario, siempre y cuando no supere la mitad (50%) del importe total de la cofinanciación. Dicho trabajo será valorado en función de Convenio de Intervención Social de Bizkaia, personal auxiliar.

- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren egiaztagiri eguneratuak, erakunde eskatzaileak haiekin dituen betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dutenak.
- Izaera bereko diru-laguntza edo laguntzak direla-eta hasi den itzulketa- edo zigor-prozeduraren batean sartuta ez daudela aitortzen duen agiria.
- Eskabidearen helburu bererako eskatutako beste edozein laguntzaren egoera (emanda, eskatuta edo izapidetzen) aitortzen duen agiria.
- Hartzekodunen fitxa, hark kontua irekita daukan finantza-erakundeak behar bezala beteta.
- Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako debeku-egoretako batean ere ez dagoela eta 13. artikuluan jasotako betebeharrak betetzen dituela dioen adierazpena.

2. Aurreko deialdietara aurkeztu diren erakundeek, data zehatz bati ez dagozkion agirien orde, zinpeko aitorten bat aurkeztu ahal izango dute, agiri horiek aldaketarik ez dutela izan adieraziz. Agiri horiek honako hauek dira: hartzekodunen fitxa, Estatutuak, dago-kion erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria, erakunde eskatzailearen IFK, eskabidea sinatzen duen pertsonaren ahalordea eta pertsona horren NANA.

3. Proiektua elkarten partzuergo batek aurkezten badu, dago-kion hitzarmena ere aurkeztu beharko du, eta informazio hau jasoko du:

- Alderdiek laguntzak arautzen dituen foru dekretuaren edukia- ren berri dutelako berrespena, eta foru dekretu horren ondoriozko betebeharrak betetzeko berriazko konpromisoa.
- Partzuergoko buru arituko den erakundea zein izango den zehaztea.
- Partzuergoa osatzen duten erakundeetako bakoitzak egingo dituen jardueren gaineko azalpena.
- Proiektua burutu bitartean bi alderdien artean sor litezkeen gorabeherak ebazteko mekanismo egokia ezartzea.

4. Gizarte Ekintza Saileko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak nahi dituen agiriak eta informazio osagarri guztia eska diezazkieke erakunde eskatzaileei, erakundeok aurkeztu duten eskabidea ondo ebaluatu eta ebazteko.

5. Eskabideak eta nahitaezko agiriak Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistroan aurkeztu behar dira (Diputazio kalea, 7), jendaurreko ordutegiaren barruan; nolana ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan zehazten diren tokietan ere aurkez daitezke.

6. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamu- netik zenbatzen hasita.

7. artikulua.— *Eskabidea zuzentzea eta espedientearen artxibatzea*

Eskabideekin batera ez badira nahitaezko agiriak aurkezten, interesdunari eskakizuna egingo zaio hamar egun balduneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Era berean, jakinarazi egingo zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako esanbidezko ebazpena eman ondoren, hala ezartzen baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1. eta 42.1. artikuluetan.

8. artikulua.— *Izapideak, ebazpena eta errekurtsioak*

1. Laguntzak Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez eman edo ukatuko dira, Batzorde Tekniko ebaluatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

- Certificados actualizados de la Hacienda Foral de Bizkaia y de la Tesorería General de la Seguridad Social, acreditando que la entidad solicitante se halla al corriente en sus obligaciones con estas entidades.
- Declaración de no hallarse incurso en procedimiento alguno de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza.
- Declaración de la situación en que se encuentra (concedida, solicitada o en trámite) cualquier otra ayuda por las acciones objeto de la solicitud.
- Ficha de persona acreedora debidamente cumplimentada por la entidad financiera en la cual tiene abierta su cuenta.
- Declaración de no estar afectada por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 y de cumplir las obligaciones relacionadas en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

2. Para las entidades que se hayan presentado en convocatorias anteriores, la presentación de documentos no referidos a una fecha concreta podrá suplirse con una declaración jurada de que estos no han sufrido modificaciones. Estos documentos son los siguientes: ficha de acreedores, estatutos sociales, inscripción en el registro correspondiente, C.I.F. de la entidad solicitante, apoderamiento de la persona que firma la solicitud y su D.N.I.

3. En el caso de que el proyecto lo presente un consorcio de asociaciones, este tendrá que adjuntar el correspondiente convenio, el cual deberá contener la siguiente información:

- Confirmación de las partes de tener conocimiento del contenido del Decreto Foral que regula las ayudas, y compromiso expreso del cumplimiento de las obligaciones de él derivadas.
- Especificación de la entidad que actuará como cabeza de consorcio.
- Explicación de las actividades que realizará cada una de las partes que forman el consorcio.
- Establecimiento del mecanismo adecuado para la resolución de los conflictos que puedan surgir entre ambas partes en relación con la ejecución del proyecto.

4. La Dirección General de Igualdad del Departamento de Acción Social podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

5. Las solicitudes, junto con la documentación preceptiva, se presentarán en el Registro de la Diputación Foral de Bizkaia, calle Diputación, 7, dentro del horario de funcionamiento del mismo, sin perjuicio de los medios de presentación previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

6. El plazo de presentación de solicitudes será de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación del presente Decreto Foral en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Artículo 7.— *Subsanación de la solicitud y archivo del expediente*

Si las solicitudes no fueran acompañadas de la documentación preceptiva, se requerirá a la asociación solicitante para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución expresa en tal sentido, conforme se dispone en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 8.— *Tramitación, resolución y recursos*

1. La concesión y, en su caso, la denegación de las ayudas será realizada mediante Orden Foral de la diputada foral de Acción Social, a propuesta de la Comisión Técnica evaluadora, y será publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinaraziko zaie prozeduraren ebazpena interesdunei. Jakinarazpen horren edo argitalpenaren praktikak bat etorri behar du aipaturiko legearen 59. artikuluan jasotako xedapenarekin.

2. Diru-laguntza emateko ebazpenean laguntza emateko baldintzak zehaztuko dira, esaterako, burutzeko epea, ekintzak justifikatzeko era eta epea, aurkeztu beharreko agiriak, eta abar; orobat, erakunde onuradunek foru dekretu honetan ezartzen denaren arabera dituzten betebeharrak zehaztuko dira. Kasu bakoitzerako baldintza bereziak ere ezar daitezke, baldin eta jardueren izaera bereziagatik edo beste inguruabar batzuegatik hala ezarri behar direla iritiz gero.

3. Eskaera ezetsiko da baldin eta erakunde eskatzaileak ez badu egiaztatzen egunean dituela Bizkaiko Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak. Halaber, dagozkion partidetan erabilgarri dauden kredituak agortzen direnean ere ezetsi egingo dira eskaerak.

4. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenek administrazio bidea amaitzen dute; erakunde eskatzaileek, orduan, aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaioke ebazpena eman duen organoari, edo, bestela, zuzenean egin dezakete ebazpenon aurka Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan.

5. Eskaerak ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskaerak jasotzeko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Eskaerak ezetsizat joko dira baldin eta epea amaitzen denean esanbidezko ebazpenik eman ez bada.

9. artikulua.— *Diru-laguntzak ordaintzeko agindua*

1. Laguntzak foru dekretu honetan zehazten den prozeduraren arabera onartu ondoren, eta prozeduraren ebazpenaren jakinarazpenetik gutxienez hamar egun igarota, emandako diru-laguntzaren %100 ordaintzeko izapidea egingo da, eta horretarako ez zaio inolako bermerik eskatuko erakunde onuradunari.

2. Diru-laguntza izapidetzen denean erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ordainduta ez baditu edo dirua itzuli behar duela dioen ebazpen bidez zordun bada, ez da diru-laguntza ordainduko.

3. Emandako diru-laguntza honekin batera beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk jaso daitezke xede berekin, baldin eta Estatuko, Europar Batasuneko zein nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoak badira. Baina kontuan hartu beharko da beste diru-laguntza horiek arautzen dituen araudiak horren inguruan ezartzen duena. Hala ere, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, inola ere ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Horri dagokionez, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen duen erakundeak horren berri eman beharko dio organo emaileari, frogatzeko moduan, eta itzulketa-gutunaren kopia aurkeztu beharko dute.

10. artikulua.— *Ez betetzeak eta itzulketak*

1. Diru-laguntza jasotzen duten erakunde batek dekretu honetan, emate ebazpenean edo gainerako arau aplikagarrietan ezarritako baldintzetako bat betetzen ez badu edo, halaber, baldin eta bidezkoketa egiteko betebeharra osorik edo zati baten ez badu betetzen, kasuan kasu egokia izango den itzultzeko prozedurari ekingo zaio eta erakunde onuradunek derrigorrez itzuli beharko dute, hala osorik nola zati baten, jaso dituzten zenbateko horiek eta baita horiei dagozkien berandutza korrituak ere, egokiak izango diren gainerrako ekintzak gorabehera. Kopuru horiek sarrera publikotzat hartuko dira.

2. Hurrengo kasuetan, diru-laguntza gisa jasotako kopuruak eta 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan ezarritako berandutze-interesak (diru-laguntza ordaindu zenetik itzulketaren bidez kotasuna erabakitzen den datara arte) itzuli beharko dira, osorik edo zati bat, kasu hauetan:

La resolución del procedimiento se notificará a las personas interesadas de acuerdo con lo previsto en el artículo 58 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. La práctica de dicha notificación o publicación se ajustará a las disposiciones contenidas en el artículo 59 de la citada ley.

2. En la resolución de otorgamiento se señalarán las condiciones de la concesión, tales como plazo de ejecución, forma y plazo de justificación de las acciones, documentación a presentar, etc., así como las obligaciones de las entidades beneficiarias en función de lo establecido en este Decreto Foral. Podrán establecerse condiciones particulares para cada caso cuando se estime conveniente por la naturaleza específica de las actividades u otras circunstancias.

3. Procederá la desestimación de la solicitud si no se hubiera acreditado por la entidad solicitante la situación regular de pagos con la Hacienda Foral de Bizkaia y frente a la Seguridad Social. Igualmente, procederá la desestimación de la solicitud por haberse agotado los créditos disponibles en las partidas correspondientes.

4. Las resoluciones por las que se proceda a la concesión o denegación de la ayuda solicitada agotan la vía administrativa y contra las mismas las entidades podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano que los hubiere dictado o impugnarlos directamente ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

5. El plazo máximo para la resolución de las solicitudes será de seis meses desde la finalización del plazo de recepción de las mismas, considerándose estas desestimadas si no recayera resolución expresa a dicha fecha.

Artículo 9.— *Libramiento de las subvenciones*

1. Una vez aprobadas las ayudas conforme al procedimiento establecido en este Decreto Foral, y transcurrido el plazo mínimo de diez días a contar desde la notificación de la resolución del procedimiento, se procederá a tramitar el abono del 100% del importe de la subvención concedida, no exigiéndose para ello garantía alguna a la entidad beneficiaria.

2. No se materializará el pago de la subvención si a la fecha de su tramitación no se está al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, o se es deudora por resolución de procedimiento de reintegro de subvenciones.

3. La subvención concedida será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes. No obstante, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada. En este sentido, la entidad que obtuviere otra subvención, ayuda, ingresos o recursos deberá comunicarlo de modo fehaciente al órgano concedente, acompañando copia de la carta de reintegro que, en su caso, hubiera realizado.

Artículo 10.— *Incumplimientos y reintegros*

